

3. ATALA: FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko **bazkidea** beste enpresa bat izango litzateke. Gure aplikazioan beste enpresa horren publizitatea egingo genuke eta enpresa horrek haien aplikazioan gure enpresaren publizitatea egitea. Modu honetan bi enpresek publizitatea lortuko genuke eta jende gehiagorengana helduko ginateke, adibidez bigarren eskuko beste enpresa batekin edo supermerkatu txiki batekin.

Gure enpresak egingo duen beste aliantza bat, “**AMC natural drinks**” enpresarekin izango da, gure antzeko zerbait egiten duen enpresa bat da, edari osasuntsuak saltzen ditu prozesatuak ez direnak. Ideia hurrengoa izango litzateke, haiek egindako hainbat fruitu zuku, edota beste edari batzuk lehenago ez direnak egon merkatuan **elkartrukatzea**, gure aplikazioan edari hauek eskaintzea eta beraiek gure produktuak eskaintzea. Horrela jende gehiagorengana heltzea lortuko genuke eta bezeroek produktu gama zabalago bat izango lukete.



Honi esker, bi enpresak dituzten diru irabaziak kantitate handian igoko lirateke. **Publizitateari** esker eta haiek haien aplikazioan, web gunean edo denda fisikoan gure enpresa ezagunagoa izango litzateke eta jende gehiagorengana helduko ginateke, eta haiek ere onura hau izango dute.

Gure aplikazioan beraien produktuak salduko dituzten nekazariak ere gure funtsezko elkarte izango liratezke haien beharra dugulako, hau da, haien falta izanez gero, negozio hau ezingo zen aurrera atera, ez genituzkeelako produktuak izango eskaintzeko eta familiek ez zuten izango ezer erosteko.

Honetaz gain, hainbat **herriko udalekin** kontaktuan jarri eta elkarte bat eratuko dugu. Haiek guri hilabetero diru bat ordainduko digute (1300€) eta guk ekonomikoki arazoak dituzten familiei laguntza bezala **diru-bono** batzuk eskainiko dizkiegu, horrela produktu osasuntsuak eskuratzeko aukera izango dute. Era honetan, diru nahikorik ez duten familiek (udalak esango dizkigu zeintzuk diren) elikagai eta produktu osasungarriak lortuko dituzte eta guk irabaziak izango ditugu.



Laurok batera enpresa honetan janaria **garraiatzeaz** arduratuko gara. Hau da, Bilbotik Durangora produktuak ekartzeaz gu arduratuko gara. Honetaz gain, Oierrek **sare sozialak egunera** eramango ditu, hau da, gure Instagram, TikTok, Twitter...-eko kontuetan nekazarien produktu berriak argitaratuko ditu. Aner, **bezeroak lortzeaz** arduratuko da, ezagutzen dituen pertsonen aplikazioa zertaz doan azalduko die, enpresa ezagutarazteko. Honetaz gain, hainbat denda, udal eta enpresa ezberdinetatik joango da hau eskaintzeni eta azalduz. Erika eta Leire, **aplikazioa egunean** eramateaz arduratuko dira, aktualizazioak eginez eta gauzak errazten, bezero guztiek aplikazioak nola funtzionatzen duen ulertzeko eta errazteko honen erabilera.